

GRADU AMAIERAKO LANA

WAHOO KICKR ARRABOLAREN BALIDAPEN ETA FIDAGARRITASUNAREN EBALUAKETA SRM-AREKIN KONPARATUZ



Egilea: Irati Otxoteko Arlegi

Zuzendaria: Gaizka Mejuto Hidalgo

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIETAKO GRADUA

2015/1016 ikasturtea

Ohiko deialdia

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	3-5. orr.
2. Marko teorikoa.....	6-22. orr.
2.1. Potentziometroak txirrindularitzan duen garrantzia.....	6-9. orr.
2.2. Potentziometro eramangarri mota ezberdinak.....	9-18. orr.
2.2.1. SRM.....	9-11. orr.
2.2.2. PowerTap.....	12-13. orr.
2.2.3. Polar Electro.....	13-14. orr.
2.2.4. Ergomo.....	14-15. orr.
2.2.5. Quarq.....	16. orr.
2.2.6. iBike.....	16-18. orr.
2.2.7. Garmin.....	18. orr.
2.3. Datuak transmititzeko gaur egungo sistemak.....	10-20. orr.
2.3.1. ANT+.....	19. orr.
2.3.2. Bluetooth.....	19-20. orr.
2.4. Wahoo KICKR arrabolaren ezaugarriak.....	20-22. orr.
3. Helburua.....	23. orr.
4. Metodoa.....	24-25. orr.
5. Emaitzak.....	26-28. orr.
6. Eztabaida.....	29-32. orr.
7. Ondorioak.....	33. orr.
8. Ikerketaren mugak.....	34. orr.
9. Etorkizunerako ikerketa ildoak.....	35. orr.
10. Bibliografia.....	36-38. orr.
11. Eranskinak.....	39-47. orr.

1. SARRERA

Gratu amaierako lan honetan, txirrindularitzako Wahoo KICKR arrabolaren (Wahoo Fitness, Atlanta, GA) fidagarritasuna eta baliogarritasuna aztertzen da potentziometro gisa. Izan ere, gaur eguneko txirrindularitzan potentziometroa garrantzi handia daukan gailua da, txirrindulariek honek emandako datuen arabera entrenatzen baitute.

Entrenamendu horietako intentsitate zonak ezartzeko, txirrindulariek errendimendua baloratzeko testak burutzen dituzte zikloergometroan. Normalean, test horiek laborategietan egiten dira, bertan parametro fisiologiko ezberdinak ebaluatu baitaitezke, kirolarien errendimenduari buruzko datu osatuak lortuz. Txirrindularitzaren kasuan, test hauek laborategikoak direnean zikloergometro estatikoetan burutzen dira protokolo ezberdinak erabiliz (Hopkins & McKenzie, 1994), baina normalean zikloergometro hauek ez dira errepidea simulatzeko gai eta bertan lortutako datuak ezin dira zuzenean bertara transferitu.

Hontaz gain, zikloergometro estatikoek beste hainbat desabantaila dituzte: ezin dira leku batetik bestera mugitu, txirrindulariek ezin dituztenez norberaren bizikletarekin testak burutu egokitze arazoak sortzen dira... eta guzti honek kirolarien benetazko errendimendu maximoa lortzeko zailtasunak dakartza.

Horregatik, errendimendu balorazioko test horiek burutzeko oso aukera interesgarria dirudi Wahoo KICKR arrabolak. Izan ere, arrabola hau eramangarria da, bere software potenteari esker errepideko egoerak simulatzeko gai da eta norberaren bizikletan pedaleatzea baimentzen du, aurretik aipaturiko arazoak ekidinez.

Merkatuan pixkanaka gero eta ezagunagoa bihurtzen ari da, UCI ProTour mailako (txirrindularitzako lehen maila) Sky talde ingelesak erabiltzen baitu lasterketa zein erlojupekoen aurretik eta ondoren txirrindularien giharrak berotu eta lasaitasunera itzuli daitezen. Hori dela eta, oraindik garrantzitsuagoa iruditzen zaigu Wahoo KICKR arrabola honen balidapena egitea.

Bibliografian ikusi dugunaren arabera, urte honen hasieran (otsailean) arrabola hau balidatu zuen artikulua zientifiko bat argitaratu zen (Zadow, Kitic, Wu, Smith & Fell, 2016). Hala ere, artikulua honetan arrabolaren balidapena kalibrazio dinamikoko tresna bat (CALRIG) erabiliz egin zen eta ez txirrindulariekin, hauek izanik benetan Wahoo KICKR arrabola balidatzeko subjekturik egokienak, beraiek baitira benetan tresna hau erabiliko dutenak. Baina, arrabola baten balidazioa ingenieritzako tresna batekin edo txirrindulariekin egitea ez denez berdina, hutsune hori bete nahi izan dugu, arrabola benetako subjektuekin erabilia baliagarria den ikusiz.

Horretarako, Wahoo KICKR arrabola potentziometroetan Gold Standard-a den SRM potentziometroarekin (Jülich, Alemania) konparatu dugu, *Euskadi Txirrindularitza Iraskundeko* goi mailako lau txirrindulari subjektu gisa erabiliz. Txirrindulari hauek bi test ezberdin burutu zituzten egun ezberdinetan, test-retest efektua bilatuz:

1. Test inkrementala: esfortzu maximoraino egin beharreko testa, 1.5 W/kg-tan hasi eta 3 minuturo 50W igotzen dituen protokoloa jarraituz (Tanner & Gore, 2012).
2. Functional Threshold Power (FTP) testa (Hunter & Coggan, 2010): txirrindulariek 20 minutuz ahalik eta potentzia maximo konstanteenean pedaleatu behar dute.

Behin datu guztiak eskura izanda, hauen analisi estatistikoa burutzeko Bland eta Altman eta ehuneko errore metodoak erabili ziren, GraphPad Prism programaren 6.0e bertsioaren (La Jolla, CA, USA) bitartez aztertuak. Ondorioak ateratzeko, emaitza hauek indibidualki aztertzeaz gain, Zadow et al.-ekin (2016) alderatu ziren, interpretazioa aberatsagoa izateko.

Ondorengo lerroetan, aipaturiko ikerketaren prozesu guztia zehatzago azaltzen da. Hasieran, marko teoriko gisa, potentziometroak zer diren eta hauek txirrindularien errendimendua monitorizatzeko nola erabiltzen diren aipatu eta potentziometro mota ezberdinak aztertuko dira, hauek gaur egun erabiltzen duten

teknologia ezagutarazi eta Wahoo KICKR arrabolaren azterketarekin bukatuz. Jarraian aldiz, egindako ikerketaren helburuak, metodologia, emaitzak eta eztabaida auztartzen dira, lan guztiaren bukaeran ikerketaren ondorioak aipatuz. Eranskinetan aldiz, egindako ikerketaren ingelesezko bertsioa biltzen da, ondorengo kongresuan aurkezteko helburuarekin: *icSPORTS 2016: 4th International Congress on Sports Sciences Research an Technology Support*.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. Potenziometroak txirrindularitzan duen garrantzia (Hunter & Coggan, 2010)

Txirrindularitza bezalako erresistentzia kirol batean, arrakasta lortzeko oso garrantzitsua da entrenamenduen iraupena, intentsitatea eta bolumena neurtzea. Horretarako, entrenamendua monitorizatu behar da eta hau egiteko hainbat tresna daude, hala nola: pultsometroak, ziklometroak eta potentziometroak.

Lehen biak orain dela urte batzuk asko erabiltzen ziren, batez ere pultsometroa, txirrindulariaren egoera fisikoaren datuak ematen dituelako. Hala ere, azken urte hauetan potentziometroek garrantzia irabazi dute, hauekin jaso daitezkeen datuak gainerakoenak baino osoagoak eta fidagarriagoak direla ikusi baita. Hori baieztatzeko, ondorengo lerroetan potentziometroari buruzko informazio osatuagoa emango da, pultsometro eta ziklometroarekin konparatuz.

Potentziometroari buruz hitz egiterakoan garbi izan behar dugun lehen gauza da potentzia zer den: denbora unitate bakoitzeko sorturiko energia kantitatea. Definizio hori txirrindularitzara aplikatuz, horrelako zerbait izango litzateke: segunduro pedaletan transmititzen den energia kantitatea. Energia kantitate hori gorputzak sortzen duen energia guztiaren %20-%25a bakarrik izanik, giharrek sortzen duten energiaren %75-%80a bero gisa galtzen baita.

Potentzia hori neurtzeko, orain dela 20 urte inguru txirrindulariak laborategira joan behar izaten ziren, zikloergometroak bakarrik baitziren gai parametro hau neurtzeko, marruskadura mekanikoaren, erresistentzia elektrikoaren, aire erresistentziaren edo fluido hidraulikoen erresistentziaren bitartez. Gaur egun aldiz, potentziometroak errepide, pista, MTB zein BMX-eko bizikletetan ezarri daitezke, txirrindulariek beraien errendimendu datuak zuzenean eskura izanik.

Potentziometroa, helburu berriak eta bere errendimenduan hobekuntza lortu nahi duten txirrindularientzat inoiz garaturiko erremintarik hoberena da seguruenik. Tresna honen bitartez, bihotz maiztasuna neurtzen duten pultsometroen edo ziklometro sinpleen bitartez ezagutu ezin daitezkeen parametroak ezagutu ditzakegu, txirrindularien errendimenduan ezkutuan dauden eremu ahulak azaleratuz.

Potentziometroak, txirrindulariaren egoera fisikoko aldaketak kuantitatiboki grabatzen ditu, entrenamendua segunduz segundu monitorizatuz. Horrela, txirrindularien ahuleziak definitzearekin batera, entrenamenduak ahulezi horiek hobetzera orientatzeko aukera ematen du.

Tresna honek, esfortzua ikuspuntu kardiobaskularretik (bihotz maiztasuna), zein muskularretik (batioak) neurtzen du. Bihotz maiztasuna, gorputzak txirrindulariak pedaletan egiten duen presioari ematen dion erantzuna izanik eta batioak, bizikleta aurrera mugitzea baimentzen duen indarra.

Orain dela urte batzuk, txirrindulari gehienek abiadura monitorizatzen duten ordenagailu txikiak (ziklometroak) erabiltzen zituzten, entrenamenduak monitorizatzeko, abiadura intentsitatearen indikatzaile gisa erabiliz; nahiz eta hau ariketaren intentsitatearen indikatzaile egokia ez izan. Hau oso garbi geratzen da abiadura neurketak potentzia neurketekin konparatzerakoan, normalean ez baita erlazio zuzenik egoten abiadura eta potentziaren artean. Hau ez da arritzekoa txirrindulariek potentzia altuenak aldapak igotzean edo bihurgune baten ondoren azeleratzerakoan sortzen dituztela kontuan harturik. Egoera hauetan sorturiko potentzia oso altua da, baina abiadura baxua. Aldiz, kontrakoa gertatzen da aldapa beheara joaterakoan, non sorturiko potentzia oso txikia den baina abiadura oso altua.

Pultsometroarekin jarraituz, aurretik esan bezala honek txirrindulariaren egoera fisiko zein errendimenduari buruzko informazio osatuagoa ematen digu, baina dirudienez hau ere ez da oso fidagarria. Aipatu bezala, potentzia ariketaren intentsitatearen erreflexu zuzena da, bihotz maiztasunak potentzia aldaketei erantzuten dien bitartean. Hala ere, potentzia oso azkar alda daiteke eta honen kurbak aldaketa handiak erakutsi ditzake. Bihotz maiztasuna beste aldetik nahiko

egonkorra da, bihotzak denbora bat behar duelako aldaketetara egokitzeko (potentzia igo edo gutxitzean).

Pultsometroaren bitartez bihotz maiztasuna bakarrik neurtuz, ezin da txirrindularia zenbat hobetzen ari den jakin, datu honek bihotza zenbaterainoko abiadurarekin ponpatzen ari den bakarrik adierazten baitu, eta hau errendimendutik at dauden faktoreek aldatu baitezakete. Horregatik, pultsometroa bakarrik erabiltzeak txirrindulariaren errendimenduari buruzko ondorio okerrak ateratzera eraman gaitzake. Esan bezala, bihotzaren ponpatzeko abiadura hidratazio mailaren, giro tenperaturaren, gorputzeko tenperaturaren, loaren, estresaren eta beste hainbat faktoreren arabera aldatzen baita.

Hala ere, parametro hau erreminta erabilgarria izan daiteke (urte askotan zehar erabili izan da eta oraindik ere erabiltzen da), baina puzlearen zati txiki bat besterik ez da; horregatik, hau potentziometroaren neurketarekin elkartzen badugu, datu oso erabilgarriak lor ditzakegu.

Izan ere, bihotz maiztasuna auto bateko erreboluzio kontagailua bezalako da, gero eta gehiago azeleratu, orduan eta erreboluzio (rpm) altuagoak. Potentziometroarekin neurtutako potentzia aldiz, autoak dituen zaldiekin aldera dezakegu; abiadura jakin batean joateko autoak erabiltzen duen potentzia. Txirrindularitzaren kasuan, txirrindulariak pedaletan eragiten duen bulkada izango litzateke; pedalak ze indarrarekin bultzatzen dituen.

Potentziaren bitartez, bihotz maiztasunaren bitartez baino emaitza zehatz eta erabilgarriagoak lortzen dira, nahi den gaitasuna lantzeko txirrindularia zein potentzia tartean mugitu behar den jakiten delako, eta potentzia honi ez diolako inolako kanpo faktorek eragiten. Izan ere, haizerik ez dagoen egun batean atalasean lan egin nahi duen txirrindulari batek 45km/h-ko abiaduran joateko 180t/m-ko behar ditu, baina haize asko dagoen egun batean berriz, esfortzu gehiago egin behar duenez, pultso horretan joanez bakarrik 30km/h-ko abiadura lortzen du.

Potentziometroarekin aldiz hori ez da inoiz gertatzen, normalean 280W-tan txirringulariaren bihotz maiztasuna 165t/m-koa bada eta egun batean 170t/m-ko maiztasunarekin 280W mugitzen baditu, bihotz maiztasun hori kanpo faktoreengatik aldatuta dagoela ondoriozta dezakegu. Izan ere, entrenamendu horretan lortu nahi diren onurak lortzeko pultsoa dena delakoa izanda, 280W-etan egin behar da lan.

Honekin bat eta hasierako adibidearekin jarraituz, potentziometroak emandako datuekin entrenamenduarekin lorturiko onurak erraz ikusi daitezke. 1-2 asteren ondoren 280W 165t/m-ko pultsoarekin mugitu beharrean 158t/m-rekin mugitzen badugu, egokitzapen bat lortu dela esan daitekeelako.

2.2. Potentziometro eramangarri mota ezberdinak


Gaur egun potentziometro asko daude merkatuan eta hauek, sei metodo ezberdinen arabera hartzen dituzte datuak: 1) bielan integraturiko sistema, 2) gupilaren bujean integraturiko sistema, 3) katearen euskarrian montaturiko sentsorea, 4) pedalen ardatzean ezarririko sentsorea, 5) aurkako indarren metodoa eta 6) pedaletan instalaturiko indar sentsorea.

2.2.1. SRM

Komertzializatu zen lehen potentziometroa eta txirringulartzaren erreboluzio teknologiko hau hasi zuena, SRM konpainia alemaniarra izan zen. Ulrich Schoberer ingeniari medikuak bere lehen prototipoa garatu zuen 1980an, biela zahar batzuk hartu eta hauen ardatzeko engranajeen zatia moztuta (eskuineko biela eta platerak doazen zatia). Gero, zati hori postreko plater txiki baten tamainako potentziometro batekin ordezkatu zuen, barruan tentsio neurgailu batzuk dituena.

Erabiltzaileek eskura izan zuten lehen modeloa berriz, 1987an merkaturatu zen eta pixkanaka enpresa hau bere modeloak hobetzen joan da, egun eskura dauden modeloak 9, 10 eta 11 abiaduratako garapenekin erabili daitezkeelarik, eta potentziometro honen instalazio zein erabilera guztientzat eskuragarri bihurtuz. Honekin bat, txirringulartzita modalitate ezberdinetan erabili daiteke, hala nola, errepidean, pistan, MTB, BMX eta erlojupekoetan.

Bizikletako bi platerak plater txiki honen gainean muntatzen dira, txirrindulariak pedalei eragiterakoan sortzen duen potentzia neurtu ahal izateko. Indar hau transmititzerakoan, plateren tortsio bat gertatzen da eta tentsio neurtzaileek dagoen tolestura maila neurtzen dute, normalarekin konparatuz. Jarraian, tortsioaren informazioa bizikletako ordenagailuko mikroprozesagailu batera bidali eta batioetan bihurtzen da.



1. Irudia: SRM potentziometroa kanpotik zein barrutik, tentsio neurgailuekin

Aipaturiko tentsio neurgailu horiek torkean oinarritutako neurketak egiten dituzte. Izan ere, SRM potentziometro bakoitzaren barruan platerak biekin konektatu eta neurketak egiten dituzten lau zubi daude, hauek tentsio neurgailuak dituztelarik. Horrela, txirrindulariak bieletan indarra eragiten duenean (torkea), zubiek aplikaturiko indar kopurua neurtzen dute bieletan gertatzen den tentsio aldaketa hautemanez. Jarraian, indar hori pedalkada bakoitzaren abiadurarekin (abiadura angeluarra) biderkatzen da potentzia lortzeko:

$$\text{Potentzia} = \text{Torkea} \times \text{Abiadura angeluarra}$$

Potentziometro batengandik espero den bezala, potentzia neurtzea ondo dago baina txirrindulariaren entrenamenduak zein errendimendua aztertu nahi baditugu, datu gehiago beharrezkoak dira. Horregatik, SRM potentziometroak 0-4200W bitarteko potentzia neurtzeaz gain, bihotz maiztasuna, altitudea (momentukoa eta entrenamenduko batz bestekoa), energia, abiadura (momentukoa, batz bestekoa eta maximoa) eta eginiko distantzia neurtzen ditu.

SRM Training System deituriko eta bielak eta platoak ekartzen dituen potentziometro hau, tresna hauen estandarra bihurtu da, gainerako potentziometroek hau erreferentziatzat hartuta neurtzen baitute potentzia. SRM-a potentziometro zaharrena izateaz gain, gehien garatu dena eta guztietatik fidagarri eta zehatzena da. Izan ere, potentzia bielen ardatzean neurtzea egokia eta logikoa da, datuek bi hankek egiten duten indarra biltzen baitute hau gertatzen den puntuan bertan. Potentziometroa bielarekin pieza bakarra osatuz eraikirik dagoenez, bizikletan integraturik dago, ekipamenduaren zati bihurtuz (Gardner, Stephens, Martin, Lawton, Lee & Jenkins, 2004).

Honekin bat, gaur eguneko SRM potentziometroak ANT+ teknologiarekin bateragarriak dira. Nahiz eta potentziometro bakoitzak bere eskulekuko ordenagailua edo PowerControl-a ekarri, sistema honek beste eskulekuko ordenagailuekin edo smartphone zein tabletetako aplikazioekin bateragarri bihurtzen du.

Behin entrenamenduak grabatu eta PowerControl eskulekuko ordenagailuan edukita, etxeko ordenagailuan analisisa egiteko software bikain baten bitartez datuak zehaztasunez irakurtzeko aukera dakar SRM-ak. Entrenamendu edo lehiaketa baten ondoren, PowerControla USB kable baten bitartez Windows edo Mac ordenagailu batera konektatu eta grafikozko artxibo bat deskargatzen da bertara, datuak aztertu ahal izateko. Azterketa horren bitartez txirrindulariak bere errendimeduaren egoera zein den eta zer hobetu behar duen ikusi dezake (Hunter & Coggan, 2010).



2. Irudia: SRM potentziometroa bere eskulekuko ordenagailuarekin (PowerControl)

2.2.2. POWERTAP

PowerTap-a atzeko gurpileko buje oso bat da, barruan potentziometro bat duena. Bujeak, “ardatz tubular” bat dauka SRM-ak erabiltzen dituen antzeko tentsio neurgailuekin. Neurgailu hauek buje barruko tortsioa neurtzen dute, txirrindulariak pedalei eragiten dien kargaren arabera tolesten direlarik. Bizikletako katea bujearen gainean doazen pinoien hortzetan engranatu eta hau mugitzean, honen barruan tolestura txikiak eragiten ditu. Azkenik, tortsio hau neurtu eta PowerTap eskulekuko ordenagailuan potentzia balioetan bihurtzen da.



3. Irudia: PowerTap potentziometroa gurpileko bujean

Potentziometro honek neurtzen duen potentzia, benetan errepidera iristen den potentzia da, platoetatik atera eta transmisio trenetik (bielak-katea-gurpila) igarotzen baita. Honek, PowerTap-ak SRM-ak neurtzen duen potentzia baino 5-10 batio gutxiago neurtzea eragiten du, Bertucci, Duc, Villerius, Pernin & Grappe, (2005)-en ikerketak erakusten duen bezala, bigarrenak indarra zuzenean bieletan (indarra eragiten den lekuan bertan) neurtzen duelako.

PowerTap-aren alde txarra beti gurpil berdina erabili behar dela da, hau bujean sarturik baitago. Horregatik, txirrindulariak lehiatzeko lehen mailako gurpilak erosten baditu, beste buje bat erosi beharko du gurpil horietan jarri eta potentzia neurgailuarekin lehiatu ahal izateko (Hunter & Coggan, 2010).



4. Irudia: gurpileko PowerTap bujea eta eskulekuko ordenagailua

2.2.3. POLAR ELECTRO

Polar sistemak katearen tentsioa neurtzen du honen euskarrian ezarritako sentsore baten bitartez, zeinek bibrazio frekuentzia neurtzen duen; gitarra baten soka balitz bezala, kateak azkarrago bibratzen du tentsioa handitzen den heinean. Frekuentzia hau indar kopuruaren handitzearekin erlazionatzen da, gero katearen abiadurarekin biderkatzen dena, atzeko aldagailuan muntaturiko sentsore magnetiko baten bitartez neurtua, sorturiko potentzia formula honen bitartez kalkulatzeko:

$$\text{Potentzia (W)} = \text{katearen tentsioa (N)} \times \text{Katearen abiadura (m/s)}$$

Nahiz eta errepideko Polar sistemak datu okerrak eman izan dituen, sistema honen zehaztasun eta iraunkortasuna SRM eta PowerTap-ekin konparaturiko hainbat test-etan frogatu da. Izan ere, zehaztasun falta hori askotan katearen euskarrian muntatzen den sentsorearen instalazio okerrarekin erlazionaturik dago, hainbat txirringailu hain instalatzeko zailtasunak izaten baitituzte. Horretaz gain, batzuetan ere garapenaren, potentziaren eta kadentziaren arteko konbinazioan seinale interferentziak eman daitezke. Hala ere, Millet, Tronche, Fuster, Bentley & Candau (2003)-k honen balidagarritasuna zientifikoki frogatu zuten.

Bestalde, sistema honen abantailetariko bat eskulekuan kokatzen den monitorea erloju bat izan daitekeela da, hau, eskumuturrean lotzen den pultsometro gisa erabili baitaiteke. Aldi berean, Polarrek bizikletarako bereziki prestatutako eskulekuko ordenagailuak ere baditu, GPS eta kadentzia nahiz abiadura sentsoreak

ezartzeko aukera ematen dutenak. Guzti honek, Polar unitatea erabilera anitzeko tresna bihurtzen du, eta oso aukera ona izan daiteke multikirola praktikatzen duten kirolarientzat. Izan ere, horrelako atleta batek igerilekuan pultsoa monitorizatzeko erabili dezake Polar erlojua, jarraian bizikleta gainean batioak neurtzeko eta korrika doanean berriro ere bihotz maiztasuna neurtzeko.



5. Irudia: katearen tentsioa neurtzen duen Polar Electro potentziometroa

2.2.4. ERGOMO

Ergomoa, Siegfried Gerlitzki-k hasiera batean edozein ardatzen tolestura neurtzeko asmatu zuen. Baina Gerlitzki txirrindularia zenez, potentziometro hau pedalen ardatzean kokatuz txirrindularitzan batioak erraz neurtu zitezkeela ikusi zuen.

Ergomoak potentzia aurretik ikusiriko potentziometroen modu ezberdinean neurtzen du, pedalen ardatzeko tortsio edo tolestura neurtzen baitu. Txirrindulariak pedalei eragiten dienean, pedalen ardatzean tolestura txiki bat gertatzen da, bustita dagoen toalla bat ura kentzeko bihurritzean gertatzen denaren antzekoa. Ergomoak ardatzen tolesturaren arteko distantzia neurtzea baimentzen duen sentsoare optiko bat dauka eta distantzia honetan oinarrituz, torkea eta txirrindularia aplikatzen ari den batioak kalkulatu ditu. Azkenik, pedalen ardatzetik ateratzen den kable txiki batek datuak eskulekuan kokaturik dagoen ordenagailura bidaltzen ditu.

Sistema honek txirrindulariak ISO, Octalink edo ISIS motako edozein ardatz erabiltzea baimentzen du. Hala ere, honek esan nahi du potentziometro hau ez dela bateragarria bi piezotako biela eta plateren jokuekin edo gaur egun estandarra den

BB30 ardatzekin. Horregatik, ergomoa daukan txirrindularia ardatz zaharrak erabiltzera beharturik dago eta batzuetan, hauek aurkitzea zaila gerta daskioke.

Tresna honen desabantaila handiena, ezker hankaren potentzia bakarrik neurtzen duela da. Izan ere, potentziometroa pedalen ardatzean sarturik egotean, birak ematen dituen edo tolesten den aldea bakarrik neurtzen du, kasu honetan ezker aldea; eskuineko aldea transmisio trenera loturik baitago. Eskulekuko ordenagailuak, ezkerreko hankak sortzen duen potentzia zehatza hartu eta batioak ateratzeko bikoiztu egiten du. Nahiz eta hasiera batean honek arazo bat suposatzen duela iruditu, erabiltzaile gehienentzat hau ez da inolako afera. Bi hanken arteko indarrean ezberdintasun nabaria duten txirrindulariek bakarrik izan baitezakete datuetan zehaztasun falta. Hala ere, Duc, Villerius, Bertucci & Grappe (2007)-ren ikerketaren arabera, Ergomo potentziometroa ez da SRM-a eta PowerTap-a bezain baliogarria, nahiz eta hau baieztatzeko ikerketa gehiagoren beharra dagoela nabarmentzen duten.

Txirrindulari guztiek ezberdintasun txiki bat daukate hanka bakoitzarekin sortzen duten potentzian, baina normalean hau %5a baino txikiagoa izaten da. Bizikleta gainean berriz, honek 10W-ko ezberdintasuna suposa dezake SRM edo PowerTap-arekin alderatuz. Hala ere, txirrindulari batek bi hanken artean ezberdintasun handia badauka, pertsona honen batioen irudi zehatza emateko ergomoa egokitu daiteke.



6. Irudia: Ergomo potentziometroa bere eskulekuko ordenagailuarekin

2.2.5. QUARQ

Quarq potentziometroak SRM-aren biletako antzeko teknologia erabiltzen du potentzia neurtzeko, honekin konparatuz zehatza eta baliogarria dela ikusiz (Stannard, Macdermaid, Mille & Fink, 2015). ANT+ teknologia dela eta, Quarq enpresak potentziometroak bakarrik garatzea erabaki zuen, eskulekuko ordenagailurik gabe; teknologia horrek marka ezberdinetako eskulekuko ordenagailuak potentziometro ezberdinekin bateragarri izatea baimentzen baitu. Bestalde, enpresa honek bere bielak produzitu beharrean, merkatuan dauden bielak egokitzen ditu beraien potentziometroekin bateragarri bihurtuz.

Quarq Technology enpresaren potentziometroa CinQo deitzen da eta *compact* edo plater normaletan erabili daiteke, erabiltzaile bakoitzari nahi duen garapena aukeratzeko askatasuna emanez. Honetaz gain, CinQo karbonozko biela gehienekin bateragarria da, hala nola Full Speed Ahead (FSA), SRAM eta Specialized markakoak; beste bielentzat ere modelo berriak sortzen jarraitzen duelarik.



7. Irudia: bielan atxikituriko Quarq potentziometroa

2.2.6. iBike

iBike azken urteetan merkaturatu den potentziometroetariko bat da, izan ere Velocomp konpainiak argitara eman zuen lehen aldiz eta arrakasta handiarekin 2006an. Bikain kalibraturiko altitude sentso bat, azelerometro bat eta txirrundulariaren mugimenduak eta inguruneke haizeak zein txirrundulariaren mugimenduak eragindako aurkako airearen presioa neurtzeko Pitot tubo bat daramatza barruan.

Potentziometro honen berrikuntza nagusia, eragindako indarrak neurtu beharrean (potentziometro guztiek egiten dutena), bere sentsoreek aurkako indarrak neurtzen dituztela da. Hau horrela izatearen arrazoiatariko bat, bere sentsoreak gurpilean, bielan edo katean bertan kokaturik egon beharrean, ordenagailuan daudela da, modu horretan iBike-a txikiagoa, arinagoa eta merkeagoa bihurtuz. iBike sentsoreek, aurkako indarrak prozesatzen dituen algoritmo sofistikatu batekin konbinatuz, iBike-aren ordenagailuari potentzia modu berritzaile batean neurtzea ahalbidetzen diote (Isvan, 2015). Izan ere, esan daiteke iBike-a indarraren neurketan zentratzen dela:

$$\text{Potentzia} = \text{Indarra} \times \text{Abiadura}$$

Laburki esanda, txirrindulariak bere aurrerako mugimendua oztopatzen duten indarrak gainditzeko (aldapak, haizearen erresistentzia, errepidearen heltze indarra...) bizikletako pedaletan indarra aplikatzen du. Zuzeneko indarretan oinarritzen diren gainerako potentziometroek txirrindulariak eginiko indarrak neurtzen dituzte, eta iBike-a aldiz, txirrindulariaren aurka egiten duten indarrak neurtzen dituen lehen potentziometroa da.

Newtonen hirugarren legean oinarrituz, aurkako indarrak aplikaturiko indarren berdinak dira eta potentziometro hau, fisikako lege horretan oinarritzen da sentsoreen bitartez aurkako indar horiek neurtu eta aurretik iBike ordenagailuan sarturiko erregistroekin konbinatuz (pisua, koefiziente aerodinamikoa...), txirrindulariaren potentzia zehazten duten aplikaturiko indarrak lortzeko.

Zaila da sinisten, matematikoki prozesaturiko aurkako indarren neurketa simple baten bitartez, bizikletako ordenagailu txiki batek zehatz esan dezakeela, txirrindularia pedalei zenbateko indarrarekin eragiten ari den. Baina gainerako potentziometroekin eginiko konparaketetan ikusi denez, iBike-ak zuzenean sorturiko indarra neurtzen duten potentziometroen datu berdinak ematen ditu.



8. Irudia: sentsoreak barnean dituen iBike eskulekuko ordenagailua

2.2.7. GARMIN

2011an Garmin enpresa estatu batarrak pedaletan eragindako indarrean oinarrituriko Vector potentziometroa merkaturatu zuen. Ofizialki hitz eginez, gailu hau “indarmetro” bat da eta ez potentziometro bat, izan ere, Vector-ek txirrindulariak pedaletan sorturiko indar bertikaletan oinarritzeaz gain, horizontaletan ere oinarrituz kalkulatzen ditu potentzia batioak. Indar horizontalen datu horrek, txirrindulariari indarra modu ezberdinetan eraginez bere potentzia nola aldatzen den ikustea baimentzen dio, bere pedalada teknika efizienteena ezagutaraziz.

Garmin-en potentziometro honek une berean txirrindulariak ezkerreko zein eskuineko pedaletan eragiten dituen indarrak neurtzen ditu. Pedalen ardatzean sarturiko sistema elektronikoari eta sentsore pertsonalizatuari esker, Vector-en indar neurketa eta potentziaren kalkulua zehatzak dira (Cavas, 2015). Honekin bat, potentziometro honen alde ona bizikleta batetik bestera arazorik gabe mugi daitekeela da, izan ere pedalak aldatzearekin nahikoa da, beti ere pedal hauek SpeedPlay markakoak badira.



9. Irudia: Garmin enpresaren pedaletako Vector potentziometroa

2.3. Datuak transmititzeko gaur egungo sistemak

Potentziometro eramangarrien ezaugarriak aztertzerakoan ikusi den bezala, gaur egun potentziometro gehienak datuak eskulekuko ordenagailura bidaltzeko kablerik gabeko sistemak erabiltzen dituzte. Sistema hauek igorlearen (potentziometroa) eta hartzailearen (eskulekuko ordenagailua) artean datuak bidaltzeko kablerik gabeko seinale bat bidaltzen dute, irrati-frekuentzia bat dena.

Kirolean erabiltzen diren kablerik gabeko transmisio sistema guztiak ez dira bateragarriak eta horrek erabiltzaileari buru hauste bat baino gehiago ekar dakiok. Hala ere, ondorengo lerroetan teknologia ikuspuntutik aukera asko ematen dituzte informazioa transmititzeko bi sistema aztertuko dira.

2.3.1. ANT+

Gaur eguneko potentziometro gehienek erabiltzen duten sistema da hau, bere filosofia produktu ezberdinak elkarren artean bateragarriak egitea da. Horregatik, sistema honen bitartez lan egiten duten produktuak beraien artean bateragarriak dira, nahiz eta marka edo enpresa ezberdinetakoak izan. Izan ere, ANT+-ek eskaintzen dituen ildoak jarraituz edozein enpresak dagoeneko merkatuan dauden produktuekin bateragarriak diren produktuak sortu ditzake.

Sistema honek ematen duen beste aukera bat hartzaile batek igorle bat baino gehiagoren datuak irakurtzea da, horrela eskulekuko ordenagailu zein smartphone edo smartwatch-ek (azken bi hauek aplikazioen bitartez) potentziometroaren, abiadura/kadentzia sentsoreen eta sentsore kardiakoen informazioa aldi berean irakurri dezakete (Ericsson, 2015).

2.3.2. Bluetooth

Teknologia honek igorle eta hartzaileen artean informazioa irrati frekuentzia bitartez bidaltzen du, kableen beharra ekidinez eta ANT+ sistemaren antzera, enpresa ezberdinetako produktuen arteko bateragarritasuna bilatuz.

Sistema honen abantailarik handiena, teknologia hau daramaten sentsoreak smartphonekin bateragarriak egiten dituela da. Gaur egun pertsona gehienek daukate smartphone bat eta sistema honi esker, potentziometro, kadentziometro zein pultsometroekin bateratu daiteke inongo beste erloju edo eskulekuko ordenagailu erosteko beharrik gabe (Gomez, Oller & Paradells, 2012).

2.4. Wahoo KICKR arrabolaren ezaugarriak

Wahoo KICKR arrabola, Wahoo Fitness enpresak merkaturatzen dituen bi arraboletatik potente eta osatuen da, SKY UCI ProTour txirrindulari talde britainiarrak erlojupekoen aurretik berotzeko eta lasterketen ondoren lasaitasunera itzultzeko erabiltzen duena. Arrabola hau potentzian oinarritzen da entrenamenduak monitorizatzerako orduan, baina modelo honen abantailetariko bat bizikleta bertara lotzeko atzeko gurpilaren beharrik ez daukala da, izan ere, arrabolak berak 10 abiaduratako SRAM/Shimano markako erresistentzia elektronikodun pinoi kasete bat dauka. Katea bertan ezarri eta gurpilaren funtzioa egiten dute pinoi hauek, horrela arrabola gehienek eragiten duten gurpilaren higadura ekidinez.



11. Irudia: SKY UCI ProTour taldeko txirrindulariak Wahoo KICKR arrabolan berotzen

Arrabola hau inertzia gurpil pisutsu batean oinarritzen da (inertzia bolantea), pedalak eman eta pinoiekin batera mugituz errepideko egoera ezberdinak simulatzen dituen (aldapak, eremu laua...). Horrela, txirrindulariak pedalei eragiten dienean sortzen duen potentzia kontrola dezake.

Erresistentzia ezartzen duen inertzia bolante profesionala, errepideko sentsazioak bikain simulatzeko prestaturik dago eta erabiltzaileak nahi izan ezker, aplikazioaren bitartez bere potentia unbralaren arabera entrenamendu sesio efizienteena aukera dezake bere gaitasunei ahalik eta probetxu handiena ateraz, errepideko sentsazioak sentitzen dituen bitartean. Bestalde, entrenamendu guztia antzeko potentzian burutu nahi badu, smartphonaren bitartez nahi den potentzia maila aukeratu eta Wahoo KICKR arrabolak erresistentzia automatikoki egokituko du, entrenamendu osoan zehar potentzia konstante mantendu dadin.



12. Irudia: Wahoo KICKR arrabola

Izan ere, arrabolak ezarritako erresistentzia eta txirrindulariak sorturiko batioak kontrolatzeko bere ordenagailu propioa ekarri beharrean, lehen aipaturiko ANT+ eta Bluetooth transmisio sistemen bitartez gaur egun pertsona gehienek daukaten smartphone, tablet edo ordenagailura konektatu eta hauen bitartez erresistentzia kontrolatzen du Wahoo KICKR arrabolak. Horretarako, Wahoo Fitness enpresak aplikazio espezifiko bat garatu du, iOS zein Android sistema eragileekin bateragarria dena (Wahoo Fitness aplikazioa). Hala ere, bere aplikazio propioaz gain, arrabola inteligente hau merkatuan dauden beste hainbat aplikaziorekin bateragarria da (Trainerroad, Zwift, Bkool, Virtual Training, etab.), erabiltzaileari bere lagunekin zuzenean lehiatzeko aukera irekiz eta arrabolan pedaleatzearen esperientzia errealagoa bihurtuz.

Modu honetan, Wahoo Fitness enpresa estatu batuarrak apustu indartsua egiten du egungo teknologiaren alde, erabiltzaileari etxean dauzkan gailuak aprobetxatuz nahi duen entrenamendu esperientzia aukeratzeko abagunea eman eta indoor entrenamendua dibertigarriagoa bihurtuz.

Hala ere, nahiz eta Wahoo KICKR arrabolak eskaintzen dituen aukerak anitzak izan eta SKY UCI ProTour talde profesionalak erabili, literaturan ez dago arrabola hau goi mailako txirrindulariekin balidatzen duen ebidentzia zientifikorik, nahiz eta urte honen hasieran arrabola hau kalibratio dinamikoko tresna batekin (CALRGI) balidatzen duen ikerketa bat argitaratu (Zadow, Kitic, Wu, Smith & Fell, 2016).

3. HELBURUA

Wahoo KICKR arrabolaren ezaugarriek diotenaren arabera, arrabola hau errepideko egoerak simulatzeko gai da, goi errendimenduko txirrindularitzaren eskakizunak asetzen dituelarik (Lucía, Hoyos & Chicharro, 2001). Baina hipotesi hau ez dago oraindik ere zientifikoki frogatuta eta horregatik, horren aurrean zerbait egiteko beharra ikusten dugu.

Hori dela eta, lan honen helburu nagusia Wahoo KICKR arrabola zientifikoki balidatzea da, hau txirrindularien errendimendua aztertzeko zikloergometro baliagarri bat bezala erabili ahal izateko.

4. METODOA

Wahoo KICKR arrabolaren (KICKR: Wahoo Fitness, Atlanta, GA) potentziaren balidazioa egiteko, honek emandako potentzia datuak merkatuko Gold Standard-a den SRM potentziometroaren 7. modeloak (Jülich, Germany) emandakoekin konparatu ziren. Bi tresna hauek aldi berean konparatu ahal izateko, SRM potentziometroa *Euskadi Txirrindularitza Iraskundea* talde amateurraren Orbea Orca bizikletan (2016ko modelo) muntatu zen, non biela originalak aldatu ziren SRMa muntatu ahal izateko.

Behin, potentziometroa bizikletan ezarrita zegoela, hau Wahoo KICKR arrabolan muntatu beharra zegoen. Horretarako, honen atzeko gurpila kendu zen, izan ere arrabolak SRAM/Shimano modeloko 10 abiadurako pinoi kasete bat dauka, erresistentzia elektronikoarekin hornitua. Horrek, bizikleta arrabolara atzeko gurpilik gabe elkartzea baimentzen du, honen higadura ekidinez. Erresistentzia kontrolatzeko aldiz, Wahoo KICKR arrabolaren aplikazio propioa erabili zen (Wahoo Fitness), iOS zein Android sistema eragileekin bateragarria dena, Bluetooth zein ANT+ bidez.

Ikerketa honetan, aplikazioa iPhone 6 telefono mugikor baten bitartez maneiatu zen, iOS sistema eragilerako bertsioa erabiliz. SRMaren potentziometroaren potentzia berriz, modelo honen eskulekuko ordenagailuaren bitartez (PowerControl 7) monitorizatu zen.

